



GOIZA PASAKO ARAUAK:

1. Epez kanpo ekarritako izen-emate orriak onartuko dira **baldin eta taldean plazarik bada**, onartua izanez gero, **eguneko 3€ko isuna** aplikatuko da.
2. Izena emate **orria bat eta bakarra** izan behar du familiako (bi (nerabeen zerbitzuan) edo hiru (haurren zerbitzuan) seme-alaba baina gehiago daudenean salbu. kasu hauetan, bi izen emate orri bete eta biak mezu berean bidali).
3. Matrikula orriarekin batera **osasun txartelaren kopia** bidaltzea beharrezkoa da iaz goiza pasan edo ikasturte honetan gaztelekuan izena emanda ez zutenek.
4. **Familia ugariaren agiria** aurkezten ez dutenei, ez zaie hobaria aplikatuko.
5. **Gizarte zerbitzuetako hobaria** jasotzen dutenak, gutxienez astean lau aldiz etorri beharko dira (Baldin eta ez badute mediku ziurtagiria ekartzen) . Horrela ez bada, hurrengo urtean hobari hau jasotzeko aukera galduko dute.
6. Matrikula epea amaitu ondoren **ez da matrikularen dirurik itzuliko**, baldin eta gaixotasun edo istripu larriagatik ez bada (medikuaren ziurtagiriarekin). Behin matrikulatu ondoren **ezingo da matrikulatutako astez aldatu eta ezta ere luzapenik egin, baldin eta ez bada 2017an jaiotako haurra**.
7. **10:00etarako ateak irekita** egon behar du eta inoiz ezin dute ordua baino lehenago irten.
8. Parte hartzailearen batek goiza pasan dagoen bitartean lehenago irten behar badu, gurasoak edo tutoreak **ardura parte bete** behar du.
9. Goiza pasako orduetan parte-hartzaileei **ez zaie botikarik emango** gurasoak edo tutoreak ez badu baimena bete.
10. Eguraldia dela eta haurren **ekintzak alda daitezke**. Aste horretan irteera gauzatuko ez balitz, herrian, goiza pasako zerbitzua izango dute irteerako ordutegia mantenduz.
11. Nerabeen irteeretan eguraldia edo beste arrazoi batzuk direla medio **irteera bertan behera geratzen bada, herrian goiza pasako zerbitzua izango dute** irteerako ordutegia mantenduz. 10€ baina gutxiagoko kostua duten irteeretan **ez da dirua itzuliko**.
12. Nerabeen ekintzetan **gutxienez 10 lagunek** parte hartu beharko dute taldea osatzeko. Ez da gehiago parte-hartzaileen mugarik egongo.
13. **Puntualitatea** eskatzen da. Irteera egunetan **berandu datorrenari ez zaio itxarongo**.
14. **HH eta LH1**eko haurren kasuan, begiraleak ziurtatu beharko du guraso, tutore, anai-arreba edo familiako kideren batekin joan dela haurra. **Familiakoa ez den norbait bila etorri behar duen kasuetan, guraso edo tutoreak ardura parte bete** beharko du lehenago.
15. **LH2tik** (hau barne) aurrerako parte-hartzaileei goiza pasatik **etxera bakarrik joaten utziko zaie** (gurasoak edo tutoreak aurkakorik adierazi ezean).
16. Udalekuetako **hizkuntza euskara** izango da.
17. **Iruran erroldatutakoek lehenatasun osoa** izango dute.
18. Talde bakoitzean **sexu ezberdinetako begiraleak jarriko dira** (ahal den heinean).
19. **Ez dira ospakizun erlijiosoak** egingo.